

GETARIA / Epaimahaia etzi bilduko da Literatur Lehiaketako irabazleak aukeratzeko

Sari-banaketa ostegunean da.

DV. Astearten bilduko da Getariako VIII. Literatur Lehiaketako epaimahaia, Udaleko Euskara Batzordeko buruak eta Iturzaeta Herri Eskola, Artzape herri-aldizkari eta literatura lantegiko ordezkari banak osatuta, aurkezturiko 131 lanen artetik aurtengo irabazleak aukeratzeko.

Guztira 113 ipuin eta 18 olerki aurkeztu dira Getariako Literatur Lehiaketako VIII. edizio honetara. Adin tarte eta kategoria guztietan egon da aurten partehartzea, lan gutxien 12 eta 16 urte bitarteetan aurkeztu direlarik.

Epaimahaia etzi bilduko da maila eta modalitate bakoitzean irabazle bat aukeratzeko, egile berak ezingo duelarik sari bat baino gehiago jaso. Asteazkenean bertan jakinaraziko zaie erabakia irabazleei, sari banaketa ekitaldia apirilaren 23an, ostegunean, egingo delarik, Nazioarteko Liburuaren Egunean, arratsaldeko 18:30etan Udaletxeko areto nagusian. Bestalde, Nazioarteko Liburuaren Egunaren ospakizunen baitan ere, ostiralean arratsaldeko 18:00etan ipuin kontalaria izango da liburutegian 4 urtetik aurrerako haurrentzat, bertan Miriam Mendoza arituko zaielarik kontu-kontari.